

# EUSKAL HEZKUNTZA LEGEARI BURUZKO AGERRALDIA

2018-12-12

2017ko irailean, Eusko Jaurlaritzak balizko hezkuntza lege baten oinarri izan nahi zuen Hezkuntza Akordio zabal bat lortzeko prozesu bat iragarri zuen. Gaur hemen gauden eragile guztiak kritiko agertu gara prozesu honekin. Lehenik eta behin, Hezkuntza sailak, daukan arduratik, ez duelako argitu zein den bere hezkuntza eredua eta zein diren bere asmoak, hau da, ez du argitu hezkuntza publikoa hezkuntza sistemaren ardatz izateko pausuak emateko prest dagoen edo egungo sare banaketa kontsolidatu nahi duen. Bizi dugun egoerak berehalako esku-hartzea eskatzen du Eusko Jaurlaritzaren aldetik, justizia soziala bermatuz eta eskola publikoa indartuz. Bigarrenik, prozedurari dagokionean, oinarrizko parte-hartze demokratikoaren aurkakoa izan da erabat, berak erabaki baititu bai edukiak, bai lantaldeen osaketa (zein eragilek, eta eragile bakoitzeko zein pertsonak zein lantaldetan parte hartu behar zuen, ordezkaritza kontutan hartu gabe). Eta azkenik, edukiei dagokionez, hezkuntza sistemari eragiten dioten oinarrizko hainbat gai kanpoan utzi ditu. Bereziki esanguratsua da segregazioa eta finantziazio ereduaren inguruan aipamenik ez egotea.

Prozesu horren ondorio izan da “Hezkuntzaren aldeko akordioa” deritzona, eta dokumentu honetan eta LOMCeri lotuta dagoen Heziberrin oinarrituta Euskal Hezkuntza Legea egitea adostu du Eusko Legebiltzarrak. Gaur hemen bildu garen eragileok ozen salatu nahi dugu hori ezin dela izan hezkuntza lege berri baten oinarri. **Legeak adostasun zabalak behar ditu, etorkizuneko hezkuntza-sistema eta ondorioz jendarte bera ere nolakoa izango den baldintzatuko bait du. Horregatik, oinarrizko parte hartze demokratikoa bermatuko duen prozesu berri bat abiatzea eskatzen dugu guztiok adostutako gaiekin.**

Gaur hemen bildu garen eragileen ustetan Lege berriak, gutxienez, hurrengo puntuetan oinarritutakoa izan beharko luke:

1. **Egungo sistemaren diagnostikoa jasotzen duena.**
2. **Egungo sare banaketa zalantzan jarri, ituntze unibertsal politika eten eta eskola publikoa ardatz izango duen hezkuntza-sistema eraikitze konpromezua izango duena.**
3. **Eskola publikoa lehenetsi eta aukera berdintasuna bermatuko duen administrazioaren planifikatzeko ardura ezarriko duena.**
4. **Europako batz besteko hezkuntza inbertsioa bermatuko duena, ezinbestekoak diren lanpostuak eta baliabideak handituz.**

# **EUSKAL HEZKUNTZA**

## **LEGEARI BURUZKO**

### **AGERRALDIA**

5. Ikasle guztien garapen osoa bermatuko duen heziketa inklusiboa, konpentsatzailea, integratzailea, hezkidetzatzailea, laikoa eta doakoa. Aukera berdintasuna, ekitatea, kohesio soziala eta kalitatea oinarri izango dituena. Egun bizi dugun segregazio egoerei aurre egingo diena.
6. Euskal Herriarentzat curriculum propioa garatuko duena.
7. Ikasle euskaldun eleanitzak sortuko dituen murgiltze eredua ardatz duen hezkuntza eredu bakarra ezarriko duena.
8. Hezkuntza jendartearen zerbitzura jarriko duena eta ez merkatuen zerbitzura.
9. Hezkuntzaren gaineko erabaki eta kudeaketan hezkuntza komunitate zein herritarren partaidetza demokratikoa izango duena.

# EUSKAL HEZKUNTZA

## LEGEARI BURUZKO

### AGERRALDIA

2018-12-12

En septiembre de 2017, el Gobierno vasco anunció la puesta en marcha de un proceso para lograr un acuerdo educativo amplio como base de una eventual ley de educación. Todos los agentes que nos hemos reunido hoy aquí hemos mostrado nuestra crítica hacia ese proceso. Primeramente porque el Departamento de Educación, desde su responsabilidad, no ha aclarado cuál es su modelo educativo ni cuáles son sus intenciones. Es decir, no ha aclarado si está dispuesto a dar pasos para que la escuela pública sea el eje del sistema educativo vasco o pretende consolidar el actual reparto entre redes. La situación actual exige la intervención del Gobierno vasco, garantizando la justicia social y reforzando la escuela pública. Por otra parte, en lo que se refiere al procedimiento, este ha sido contrario a los fundamentos de la participación democrática, ya que ha sido el mismo Gobierno el que ha decidido los contenidos así como las personas participantes de cada uno de los grupos (qué agentes y qué personas de cada agente, sin tener en cuenta la representatividad). Y por último, en lo que se refiere a los contenidos, ha dejado fuera muchos temas que afectan al sistema educativo. Es significativo que no haga mención a la segregación y al modelo de financiación.

El “Acuerdo por la educación” ha sido el resultado de este proceso. El Parlamento vasco ha decidido basarse en este documento y en Heziberri, que está sujeto a la LOMCE, para elaborar la Ley Vasca de Educación. Los agentes educativos que nos hemos reunido hoy aquí creemos que esa no puede ser la base de una nueva ley de educación. **La Ley necesita un amplio consenso, porque condicionará tanto el sistema educativo como la sociedad del futuro. Por ello, solicitamos que se ponga en marcha un nuevo proceso que garantice la participación democrática con los temas que acordemos entre todas y todos.**

# **EUSKAL HEZKUNTZA**

## **LEGEARI BURUZKO**

### **AGERRALDIA**

En opinión de los agentes que nos hemos reunido hoy aquí la nueva Ley debería basarse, al menos:

- 1. Realizar un diagnóstico del sistema educativo actual.**
- 2. Poner en tela de juicio el actual reparto entre redes, acabar con la concertación universal y adquirir el compromiso de construir un sistema educativo cuyo eje sea la escuela pública.**
- 3. Priorizar la escuela pública y establecer una planificación que garantice la igualdad de oportunidades.**
- 4. Garantizar una inversión similar a la media europea, aumentando para ello los puestos de trabajo y los recursos necesarios.**
- 5. Ofrecer una educación inclusiva, compensadora, integradora, coeducativa, laica y gratuita que garantice la educación integral de todo el alumnado, basada en la igualdad, la equidad, la cohesión social y la calidad. Que haga frente a las situaciones de segregación que vivimos hoy en día.**
- 6. Desarrollar un curriculum propio para Euskal Herria.**
- 7. Establecer un único modelo educativo cuyo eje sea un modelo de inmersión que garantice la formación de un alumnado euskaldun plurilingüe.**
- 8. Poner la educación al servicio de la ciudadanía y no al servicio de los mercados.**
- 9. Basar las decisiones sobre educación y su gestión en la participación democrática de la ciudadanía.**